

HIRI LURZORUAN ETA LURZORU URBANIZAGARRIAN, JABARI ETA ERABILERA PRIBATUKO ESPAZIO LIBREEN ITXITURA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

1. ARTIKULUA.- XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA

Ordenantza honen xedea, itxituren diseinua eta kontserbazioa arautzea da, eraikinen inguruan dauden jabari eta erabilera pribatuko espazio libreetan, hala denean, lurzatiaren itxituraren marraraino helduko diren garajeak daudenean nola garaje horiek kaleko lerrokaduraraino heltzen ez diren kasuetan.

2. ARTIKULUA.- LURZATIAREN ITXITURAREN DISEINUA

Lurzatiaren itxituraren diseinua bidezko eraikinean ohikoak diren fatxadako materialen araberakoa izango da edo, hala denean, egon dagoen kale horretan nagusia den akaberaren araberakoa. Itxituraren proiektua Udalak onetsi behar du burutu aurretik. Proiektatutako itxitura eta itxitura eraikitzen denean ager daitezkeen bilguneak, hausturak edo aparteko elementuak zehazteko oinplanoa, sekzioa eta altxaera azalduko dira itxituraren proiektuan. Halaber, itxituren integratuko diren oinezkoen eta ibilgailuen sarbide-ateak xehatuko dira, eta horien materialak, koloreak eta espaloien sestrarekiko duten altuera zehaztuko dira.

3. ARTIKULUA.-LURZATIAREN ITXITUREN ALTUERA

Lurzatiaren itxiturak obrako hormatxo bat izango du, metro lekoa, eta kolore berdeko sare plastifikatua, edo altzairu galbanizatuzko edo burdineriazko itxitura, beltzez margotuta. Halaber, baimenduta daude zurezko oholak erabiliz eginiko itxiturak.

Ixteko hormatxoak tarte horizontalak izan ditzake kalearen profilaren arabera egokitzeko xedez, baldin eta hormatxo horren gehieneko altuerak ez badu metro leko altuera gainditzen. Hormatxo hori komenigarri iritzitako edozein materialez egin daiteke, eta horiek aukeratzea kasuan kasuko eraikinaren edo egon dagoen kalean nagusiak diren materialekiko harmonian oinarrituko da. Hormatxoak, gainaldean, ur-isurkia izango du, ur horiek kalearen frontea ez zikintzeko. Baimenduta dago hormatxoak sarrerako ateen altuera izatea, gehi beste 20 cm gailurreko isurkiak jartzeko, ateetako ostikoak eratzen diren guneean.

Debekatuta dago atekin batera atariak edo teilatupe txikiak eraikitzea; baimentzen diren bakarrak apaintzeko elementuak dituzten ostikoak dira, esaterako farolak dituztenak.

Lurzatiaren itxiturak, perimetro osoan, gehienez 1,80 metroko altuera izango du espaloien sestrarekiko, horren gune bakoitzean neurtuta alegia eta, ondorioz, horren profilari jarraituko dio inolako mailakatzerik eragin gabe. Kalea aldapatsua bada, itxiturari honako mailakatzea aplikatuko zaio:

- Lurraren aldapa %5ekoa baino txikiagoa denean, itxitura lurraren sestrarekiko paraleloa izango da.

- Lurraren aldapa %5ekoa baino handiagoa denean, irtenguneak egingo dira itxituran, eta irtengunea 0,15 metrokoa izango da gutxienez eta metro 1ekoa gehienez ere.

Lurzatiaren itxiturak, lurzatira sartzeko gunean, sarbide-ateak izango ditu; ate hauetako alde bietan ostikoak ipiniko dira, gehienez ere 1,80 metrokoak. Ostiko bakoitzaren luzerako garapena 2,50 metrokoa izango da, gehienez ere.

4. ARTIKULUA.- LURZATIEN ITXITUREN ATZEALDEAN ZUHAIXKAK IPINTZEKO AUKERA

Honen aurreko puntuan deskribatu diren lurzatietakoa itxituren atzealdean palaxu edo txilarra ipintzeko aukera dago; debekatuta dago plastikoak edo landareak ez diren beste elementu batzuk erabiltzea.

Espazio libreko erabileraren titularrak, itxituraren atzealdean zuhaixkak landatzen baditu, palaxua moztu beharko du urtean behin gutxienez, berak ordainduta, kaleen aurrean edo jabetza eta erabilera publikoko espazioen aurrean, lurzatiaren itxituraren altuera berean utziz, hau da, espaloia sestratik 1,80 metrotara.

Berangon, 2016ko abenduaren 1ean.